



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Hasteko, hornitzaile, sozietate eta erakundeekin harremanetan jardugo gara gure zerbitzua ahalik eta modu onenean bezeroengana iritsi dadin.

Festibaleko antolatzaileek, gure enpresaren berri izan dute eta hauek gurekin harremanetan jartzea erabaki dute zerbitzu bat eskaini dezagun festibalean. Lehen aipatu bezala, 100.000€-ko aportazio bat eman digute beraien festibalean zerbitzu bat eskaintzeagatik, hori dela eta gure harreman fluxua garrantzitsua izateaz gain, ezinbestekoa izango da. Beraz, proposamen honetara heldu ahal izateko bideo-deiak egingo ditugu maiz.

Era berean, Aladina elkartearekin harremanetan izango gara jaialdia hasi baino egun batzuk lehenago, amaitu ondoren, denok batera gure irabazien banaketa nolakoa izango den hitzartzeko. Gure bezeroak jakinaren gainean egongo dira gure zerbitzua erabiltzeagatik ordaintzen dutenaren erdia baino gehiago Aladina fundazioarentzako izango dela, eta horretaz kideok arduratuko gara, Stand bakoitzean Aladinaren inguruko informazioa azalduko dugunez gero.

Gainera, gure irabaziak guztira, dohaintza kontuan izan gabe 418.065€-koa izango direla estimatu dugu. Beraz, diru-kopuru horren bi heren Aladina elkarteari donatuko diogu, gutxi gorabehera 278.710€ eta gainontzekoa hiru bazkideon etekina izango da.

Amaitzeko, karritoen zerbitzuari dagokionez, bezeroek, beraien banakako tiketak jaialdian egongo diren hiru Stand-etan erosteko ahalmena izango dute. Aipatu beharra dago, erosketa hau egunero egongo dela, baina erositako tiketak egunean bertan erabiltzeko izango dira.